

## ZESTOAKO LOROA



Zestoako Balnearioa ospe handikoa da aspalditik eta jende asko etorri izan da Urola aldeko herri horretara bertako ur termal eta terapeutikoekin sendatzera. Errege familiako jendea, politikoak, artistak, idazleak... joan izan dira Zestoako Balneariora, horien artean Pio Baroja eta Azorin. Jende xehegoa ere bai, noski, eta baita yako edo loro ospetsu bat ere, Pepe, Hotel Estación izenekoan bizi izan zena eta alboko tren geltokian balentria galantak egin zituena.

Loro guztiek bezala dohain bereziak zituen hizketarako, jendeari barre egin arazteko, bihurrikeriak egiteko... Baina batez ere tren geltokiko Joanito Porturen lagun egin zen Pepe loroa. Geltokiburuak ardo-zopak ematen zizkion gosaltzeko eta loro gizarajoa lotuta zegoen gizon hari, eguneroko bixigarria eskaintzen ziolako eta ametsetako bideak irekitzen zizkiolako.

Loroa tren geltokian eta hoteleko tabernan, bietan, egoten zen eta toki bakoitzean esperientzia interesgarriak eta batzuetan gogorrak tokatu zitzaion bizitzea. Tren geltokian, Joanito Portuk bizimodua arintzen zion, triste zegoenean kontsolatuz, trenen joan-etorrietako gorabeherak berarekin partekatuz, txilibitua jotzen erakutsiz, trenetako bidaiariekin solasaldiak edukiz... Tabernan, berriz, bezero erdi mozkorrak, mingain zikinekoak, petralak, ume gogaikarriak..., inoiz jende jatorra ere bai, denetik tokatzen zitzaion.

Baina Zestoako loroa protagonista berezi bihurtu zen egun batean txilibitua jo eta trena martxan jarri zuelako, ia-ia istripu larria eraginez. Baina, epaitegira eraman zuten Jonito Portu bere lagunarekin batera eta errugabe atera ziren epaitegitik, trenari abiatzeko agindua ematen dion seinalea txilibitu hotsa ez, baizik eta hots horren ondoren altxatzen den banderatzko gorria delako.

Espainiako egunkari handi gehienetan azaldu zen albistea eta Parisko abeslari batenganaino ere iritsi zen nonbait, honek bolero bat asmatu baitzuen loro gogoangarri haren omenetan: *“Le train et le perroquet”* eta hura abesten zuen entzuleen irribarre konplizearekin.